

Mundua Inperioaren arabera: WikiLeaks erakutsi diguna

Plazaratu berri da *The WikiLeaks Files: The World According to the Us Empire* liburua (WikiLeaks artxiboak: Mundua AEBen inperioaren arabera). Bertan alor ezberdinetako adituek analizatu dituzte *Cablegate* izeneko datu sailak, AEBetako Atzerri Ministerioaren komunikazio sekretuak 2010eko azaroan WikiLeaks argitaratuak.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

HEROIAK DIRA WIKILEAKSEKOAK”, idatzi du John Pilger kazetari australiarra, gorazarre eginez 2012tik Ekuadorren Londresko enbaxadan preso bizi den Julian Assange-ri.

Edozein herritarrek bezala gehiegizko albiste deigarriren artean itotzear bizi den kazetariak erreferentziak behar izaten ditu garbi bereizteko manipulaziozko propaganda eta ikerketako kazetaritza. John Pilger edo Noam Chomskyk bermatzen dutela jakitean, WikiLeaks fidagarria dela ulertzen dugu eta hori asko da garaiotan.

Idatzi du Pilgerrek “*The Revolutionary Act Of Telling The Truth*” artikuluan: “Garai ilunak hauek, zeinetan gezurraren propagandak astintzen baititu gure bizitzak. Badirudi errealitate politikoa pribatizatu dutela eta engainua legitimatu. Informazioaren aroa hedabide nagusien aroa da. Dena hedabideen bidez, politika, zentsura, gerra, soldata, aisialdia... klitxe eta gezur sorta surrealista bat”.

Eta aurrerago: “George Orwell-ek esan zuen: ‘Gezur unibertsalaren garaietan, egia esatea ekintza iraultzailea da’. (...) Benetako disidenteak exotikoak dira gaur; baina ez dira gaur baino beharrezkoagoak izan inoiz. *The WikiLeaks Files* liburua da bere benetako izaera ezkutatzeko duen faxismoarentzako anti-

dotoa. Liburu iraultzailea da, hain zuzen WikiLeaks bera iraultzailea delako, Orwellek esaten zuen moduan”.

Gobernuen informazio sekretuak herritarrei zabaltzea helburu duen WikiLeaks jauzi berezia egin zuen 2010ean, prentsari zabalduz AEBen Atzerri Ministeritzak *top-secret* katalogatutzat gorderik zeuzkan 251.287 mezu *-cable* deitutako diplomatikoen hizkeran, hortik *Cablegate*, aspaldi Richard Nixon boteretik kanporatu zuen *Watergate* eskandalua oroitaraziz—.

Cablegate munduaren begien aurrean erakutsi zuen benetan zer pentsatzen duten AEBetako agintariak planetako beste liderrez, etsaiez bezala lagunez, izan diktadore ala demokrazia hautatu. Tartean azalera atera zituen AEBk mundu osoan zehar planifikatu eta burutu-tako ekintza klandestinoak, giza eskubideen urraketak ere bai.

Orain Verso argitaletxe ingelesak plazaratu du *The WikiLeaks Files: The World According to US Empire* liburua, 251.287 mezu sekretu horiez zenbait adituek egindako analisiekin. Hitzaurrea Julian Assangek berak idatzi du.

Argitaletxearen hitzetan, “liburuak jorratzen du nola esku hartzen duten AEBek beste nazioen agendetan: inperialismo mota berri bat

Boliviako Gobernuak zabalduko argazkian, AEBen negozio arduraduna abuztuan Evo Moralesekin bilduta. AEBek ez daukate enbaxadorerik Bolivian 2008an Moralesekin Philip Goldberg *persona non grata* izendatu zuenetik. Goldberg enbaxadoreak, antza, jarraitu zuen bere aurretik David L. Greenleek egindako azpijokoekin. *The Wikileaks Files* liburuak eragin zalapartaren erdian, Hego Amerikako atala idatzi duten Dan Beetonek eta Alexander Mainek fite adierazi dute kableetan inon ez dela ageri AEBek planifikatu zutenik Evo Morales hiltzea. Egia, diplomatiko soilik diote hori gertatzen denerako prest egon behar dutela. Hitz egiteko manera bihurria. Liburuan luze-zabal aztertu dituzte Venezuelan Chaves eta Maduroren kontra, Ekuadorren Correa izorratzeko eta Hego Amerika osoan egindako lan zikinak, AEBetako diplomatikoen mezuetan aitortuak inork inoiz ikusiko ez zituelakoan.

da hainbat taktikatan oinarritua, hasi torturetatik eta ekintza militarretara, tartean direla merkataritza itunak eta *soft power* (botere leuna), beti ere munduan eragina handitu nahia. Liburuak erakusten du AEBko komertzioaren sustapenean gobernuak eta korporazio handiek daukaten lotura”.

Godfather-ek Evo ikusi nahi du

The WikiLeaks Files-en kapitulu bat Alexander Main eta Dan Beetonek idatzi dute. Centre of Economic and Policy Research institutuko bi ikerlariok analizatu dute filtratutako dokumentuetan ageri dena AEBen eta Hego Amerikako gobernuen arteko harremanez.

Mainek eta Beetonek beraiek laburbildu dute beren atala *The Jacobin* aldizkarian: “*US diplomatic cables reveal a coordinated assault against Latin America’s left-wing governments*”. Alegia, AEBetako diplomaziaren dokumentuek erakusten dute Latino Amerikako gobernu ezkertiarren kontrako eraso koordinatua.

Alderatu dute Greziarrei gertatuarekin. Erreferendumean ezekoa eman ziotenean Troiak ezarritako erreskateari, Europako Banku Zentralak blokatu zituen Greziako bankuak eta presio bortitz horrekin Europako agintariak zaborretara bota zuten greziarrek demokratiko-



ki erabakitakoa, hauek agenda neoliberalaren azpira makurraraziz.

“Aurreko hamabost urteetan –diote Main eta Beetonek– neoliberalismoaren kontrako antzeko borroka zabaldu da Amerika osoan. Nahiz eta hasieran Washingtonek planeatu zuen disidentzia oro itotzea, Grezian erabili direnak baino are taktika bortitzagoekin, Latino Amerikak neurri handi batean lortu du aurre egitea agenda neoliberalari. Borroka epiko bat izan da, pixkanaka argitara ateratzen ari dena WikiLeaks zabalduetako AEBen kable diplomatikoen azterketari esker”.

1980ko hamarkadan neoliberalismoak ondo irmotua zirudien Latino Amerika osoan. Aurretik estatu kolpe odoltsuek diktadura bortitzak

ezarriak zituzten Argentinan, Uruguain, Txilen... langileen egiturak zanpatu eta *Chicago boysen* formula ekonomikoak nagusi arazteko.

Baina 1999tik 2008ra bitartean ezkerreko hautagaiek irabazi zituzten hauteskundeak Venezuela, Brasil, Argentina, Uruguay, Bolivia, Honduras, Ekuador, Nikaragua, eta Paraguain. WikiLeaks filtratutako mezuek erakusten dute yankiek horiek desestabilizatzeko egunez egun egiten zutena.

Adibide argigarria da Evo Morales zepoan harrapatzeko egindako ahalegina. 2005eko abenduan irabazi zituen lehendakartzako hauteskundeak eta urtarrilaren 3an, kargua hartu aurretik, AEBetako enbaxadore David L. Greenleek bisitatu zuen.

Bilera honela laburbildu dute Main eta Beeton akademikoeak: “Enbaxadorea berehala joan zen mamira. AEBek kontrolatzen zituztenez Boliviari laguntzeko hitzarmen multilateralak, horrek makur arazi behar zuen Moralesen gobernu. *The Godfather* filmeko eszena baten antzekoa izango zen”.

Izan ere enbaxadorearen akta filtratuak dio: “Enbaxadoreak azaldu dio AEBen laguntza funtsezkoa duela Boliviak nazioartetik eskuratu beharra daukan finantzazko laguntza lortzeko, esaterako IDB Nazioarteko Garapen Bankuarena, Munduko Bankuarena eta Nazioarteko Diru Funtzaren. ‘IDBarekin zerbait nahi duzunean, pentsa ezazu AEBekin ari zarela’ esan dio enbaxadoreak. ‘Hau ez da mehatxu bat, errealitate soila da besterik gabe’ esan dio”.

Hala ere Moralesek eutsi egin zion bere programari. Eta diru bidezko presioa aski ez zenez, AEBak hasi ziren konspiratzen zerbait eskualdetako agintari lokalekin. “Gas hodi batzuk lehertzen badituzue kasu egingo dizue gobernuak” diotse enbaxadoreak.

2008ko udako komunikazio batek dio: “[AEBk] prest egon behar dugu Moralesen kontrako kolpe edo atentatu bat gertatzen baldin bada ere”. Zorionez ez zen gauzatu: Moralesek aurretik kanpora bidalia zuen enbaxadorea.

Ikertzaileen azken deia: “Filtratutako kableetan oraindik bada asko aztertzeko AEBen diplomaziaz. Tamalez, kableen argitaratzeak sortu zirrara pasatutakoan, akademiko gutxi hurbildu da horietara”. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira